

PRENTSA-OHARRA

IrriZiklok Nafarroako Antzerki Eskola irriz beteko du asteazkenero, otsailaren 21ean hasi eta sei astez

Udalak programatu dituen 7 ikuskizunetarako sarrerak eta abonamenduak salgai dira jada

Euskarazko umore zikloa berriz ere taula gainean izango da. Datorren astetik aurrera, asteazkenetan, irriendako gune bat egongo da Iruñeko Udalak antolatu duen *IrriZikloaren* edizio berriari esker. Nafarroako Antzerki Eskola, San Agustin kalean, 20:00etatik aurrera komedia, monologo, magia, antzerki, elkarrizketa eta bestelako ikuskizunen agertoki izango da, xede hartuta ikusleengan irria eragitea. Guztira 7 ikuskizun izango dira, eta sarrerak jada salgai daude, 3 euroan. Gainera, ziklo osoa ikusteko abonamenduak daude, 13 euroan. Saiotako bat Kondestable Civivoxean izango da, eta sarrera doan izango da.

Iruñeko Udaleko Herritarren Aferen Batzordeak gaur goizeko saioan ezagutu du *IrriZikloko* programazioa, otsailaren 21etik martxoaren 27ra egitekoa dena. Saio guztiak asteazkenetan izango dira, 20:00etan, bi ezik: otsailaren 23an, ostiralarekin, saioa Kondestable Civivoxeko areto gotikoan izango da, 19:30ean; eta azken saioa, zikloari buru emango diona, asteartean izango da, martxoaren 27an.

Zikloa otsailaren 21ean hasiko da, asteazkenarekin, ospitale psikiatriko bateko musika-aretoan. Joseba Usabiaga eta Iñaki Santos aktore gipuzkoarrek musikari bat eta “musikak zorarazten duen” pertsona bat hezurmamituko dituzte *Ni ala zu* antzezlanean. Lehen aste honetan *IrriZiklok* saio gehigarri bat izango du ostiralean, Kondestable Civivoxeko areto gotikoan, irakasle, idazle, monologista irlandar, euskal hiztun, musikari eta abeslari Barry Manleyren eskutik (*Barry Barrez*). Manleyk *From Cork to Kortezubi* lanarekin emango die atsegin ikusleei.

Hurrengo saioa otsailaren 28an izango da, asteazkenarekin, Darío Fo eta Franca Rameren antzerkiarekin, Tartean Teatroa konpainiaren eskutik. Mikel Martínezek eta Irati Agirreazkuenagak *Biba Voi!* taularatuko dute. Hurrengo asteazkenean, martxoaren 7an, Txan magoaren txanda izango da, *Inpernutik natorren artista bat naiz ni!* ikuskizunarekin. Beatriz Egizabal eta Ana Labaka gipuzkoarren bertsoak eta monologoak izango dira hurrengo astean, *Erradikalak gara* obran.





Martxoaren 21ean, asteazkenarekin, saio bikoitza izango da. Itziar Saenz de Ojer pedagogo, sexologo, hezitzaile eta aktorea igoko da taula gainera lehenengo, *Sexijentziak askatuz* saioarekin. Zirika Zirkuseko Ainhoa Juanizek hartuko du gero lekukoa, Pantxika Lamur hezurmamituz *Nik egin beharko & ko* antzeztuko duelarik.

IrriZikloa martxoaren 27an amaituko da, asteartearekin, Txalo Produksioak konpainiaren *Etxeko saltsak* lanarekin, Alan Ayckbournen *Relatively speaking* antzezlanean oinarritutako endredoizko komedia. Taula gainean, Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino.

IRRIZIKLO 2018

- **Otsailak 21, asteazkena. Nafarroako Antzerki Eskola. 20:00**

Ni ala zu. Joseba Usabiaga eta Iñaki Santos. Ttipia Kultura Sustapenak

2018. urtea. Ospitale psikiatriko bateko musika-aretoa. Musikari bat eta “musikak zorarazten duen” pertsona bat. Musikaria bere gelan dago, norbaiten zain. “Bezeroa” sartzen da. Bere arazoa gainditzeko terapia egokia aurkitu behar da.

Aktore gipuzkoarrak, antzerki, zinema zein telebistan eskarmentudunak. Joseba Usabiaga, *Handia* filmeko protagonista, zenbait urtez aritu da *Goenkale* telesailean lanean. Iñaki Santosek hainbat antzerki-konpainiatan lan egin du –Agerre Teatroa, Dejabu, Bazen behin clown–; musikaria da, abesten du, eta hainbat instrumentu –teklatuak, saxoa, perkusioa– jotzen ditu hainbat taldetan.

- **Otsailak 23, ostirala. Kondestable Civivoxa. 19:30**

From Cork to Kortezubi. Barry Manley (*Barry Barrez*)

Monologo honetan, Manleyk gogoeta egin eta bere benetako istorioa azaltzen du, horretarako hainbat pasadizo eta, jakina, umorea baliatuta. Nola heldu zen Euskal Herrira, zergatik ikasi zuen euskara, eta, batez ere, zergatik egiten dituen umorezko monologoak.

Barry Manley *Barry Barrez* da. Irakaslea, idazlea, monologista irlandarra, eta euskal hiztuna. Baita musikaria eta abeslaria ere.

- **Otsailak 28, asteazkena. Nafarroako Antzerki Eskola 20:00**

Biba Voi! (Dario Fo eta Franca Rameren antzerkia). Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga. Tartean Teatroa

Mistero buffo, Morte accidentale di un anarchico, Adan eta Eva, Tutta casa, letto e chiesa, etab. Testu horiek azkarrak eta ziztatzaileak dira, eta egileen filosofia, ideologia eta bizimodua transmititzen dituzte, betiere umorez.

Mikel Martinez aktorea eta idazlea da. Jatorriz, Lizarraldekoa. Maskara konpainia bilbotarreko fundatzailea, egun Ez dok hiru eta Tartean konpainietako kide da. Irati Agirreazkuenaga antzerki aktorea da, kazetaria, eta EHUKo irakaslea. Irrati zein telebistan lan egin du. 2011n Alanbike antzerki-konpainia sortu zuen.





- **Martxoak 7, asteazkena. Nafarroako Antzerki Eskola 20:00**

Inpernutik natorren artista bat naiz ni!. Txan magoa

Miraririk badela esaten badizute, ez sinistu. Objektuak bere kabuz mugitzen direla kontatzen badizute, ez sinistu. Ez sinistu ezta ere ametsak egi bihurtzen direla esaten badizute. Aldiz, magian sinesten ez dutela esaten badizute, Txan magoaren azken sorkuntza oraindik ez dutelako ikusi da.

Gipuzkoako Ilusionismo Elkarteko kide eta areto-magia delakoan aditua, ETBko *Barrebusa* programan lan egin du. Halaber, Takolo, Pirritx eta Porrotx zein Gari Lontxo eta Joselontxo pailazoekin aritu da, haurrendako ikuskizunetan.

- **Martxoak 14, asteazkena. Nafarroako Antzerki Eskola 20:00**

Erradikalak gara. Beatriz Egizabal eta Ane Labaka. Lanku

“Erradikalak zarete” esaten diete, eta nahi zein behar luketena baino gutxiago direla pentsatzen dute. Bi emakume elkartzen dira, maletak kontraesanez beteta dituztela. Publikoarendako irekiko dituzte, bertso eta monologo formatuan. Errailetatik hitz egingo dute, umorez, sustrairaino heldu nahian. “Erradikalak gara” esango dute. Eta publikoak pentsatuko du: “Nahi zein behar zenuketena baino gutxiago”.

Ane Labaka bertsolaria eta bertsolaritza irakaslea da; eta Beatriz Egizabal (KontuKantoi), ipuin-kontalaria eta klowna. Biak ala biak Lasarte-Oria herri gipuzkoarrekoak dira.

- **Martxoak 21, asteazkena. Nafarroako Antzerki Eskola 20:00**

Sexijentziak askatuz. Itziar Saenz de Ojer

Pituxak ez du asko gozatzen sexu kontuekin. Irtenbide bila aritu da, eta egindako hausnarketa publikoarekin partekatzeraz dator. Zer nolako exijentziak eta zereginak sortzen dira harreman erotikotik? Nor bere benetako desioez kontziente al da? Gizarteko estereotipoek baldintzatzen gaituzte?

Itziar Saenz de Ojer pedagogoa, sexologoa eta hezitzailea da, baita Bazen behin clown konpainiako aktore eta ipuin-kontalaria ere.

Pantxika Lamur. Nik egin beharko & Ko. Ainhoa Juaniz. Zirika Zirkus

Pantxika Lamur oportetetik dator, eta maleta eta guzti, ikuskizun bat ikustera sartzen da. Zer gertatzen den ikustera esertzen da, gauza horiek izugarri gustatzen baitzaizkio. Berehala, Pantxika zein gainontzeko ikusleak ohartuko dira artistak ez direla etortzen. Baina berak badaki argi eta garbi zer egin... Laster agertokia bere egingo du.

Ainhoa Juaniz iruindarra, Pantxika, aktorea, klowna eta Zirika Zirkus konpainiako fundatzailea da, Luis Lainezekin batera.

- **Martxoak 27, asteartea. Nafarroako Antzerki Eskola. 20:00**

Etxeko saltsak. Txalo Produzioak. Testuaren egilea: Alan Ayckbourn.

Relatively speaking antzezlan arrakastatsuan oinarritutako endredoeko komedia bat da *Etxeko saltsak*. Bikotekide zein amoranteen sekretuak eta endredoak. Istorioak pertsonaien bideak hamaika norabidetan gurutzarazten ditu, eta gaizki-ulertutik gaizki-ulertura, ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago dute.



Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino.
Antzerki, zinema zein telebistan eskarmentu handia duten aktoreak, bai hemen bai estatuan.

Iruñean, 2018ko otsailaren 12an 2018

